

OTSAILAK

25



TALDEA:



DURANGO KANTARI



12:00

OTAMOTZENA PARKEA



durango



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

egund*o* i

AURKIBIDEA

- 1- Amets, amets egin**
- 2- Bermioko portuan**
- 3- Azken dantza (Sol M)**
- 4- Hesola**
- 5- Matalaz**
- 6- Itsasoari begira**
- 7- Baratze bat**
- 8- Isil-isilik**
- 9- Herribera**
- 10- Guk euskaraz**
- 11- Loretxo**
- 12- Eperra**
- 13- Txantxibiri**
- 14- Txalaparta**
- 15- Koldobike**
- 16- Oi gu hemen**
- 17- Nula bizi hala kanta**
- 18- Txoriak txori (alboka)**
- 19- Gogoaren baitan**
- 20- Ama zuriak neri (alboka)**
(Begiak barrez-barrez)
- 21- Gora ta gora beti**
- 22- Ai ze polita**
- 23- Zenbat gera**
- 24- Xalbadorren heriotzean**
- 25- Pottoka**
- 26- Zurekin batera**

AMETS, AMETS EGIN


Hitzak eta musika: Agustin Zubikarai

Amets, amets egin, itsas gizona,
amets, zure ametsa gerta leikela.

*Berriz etorriko zera
Ondarruko kaiera,
han daukazu maitea
itxaroten dezuna,
berriz etorriko zera
zure txaluparekin,
han daukazu maitea ta bihotza.*

Uu, uu, uu...

*Berriz etorriko zera
Ondarruko kaiera,
han daukazu maitea
itxaroten dezuna,
berriz etorriko zera
zure txaluparekin,
han daukazu maitea ta bihotza,
han daukazu maitea ta bihotza.*



BERMIOKO PORTUAN

Bermeoko herri-kanta

1. Bermioko portuan }
goizeko ordu bietan } bi
ez da **entzuten** besterik,
ez da **entzuten** besterik,
ez da **entzuten** besterik
Txo! atrakaizu batela!

*Egia da, egia da,
neuk ikusikoa dalako.*

*Egia da, egia da,
neuk ikusikoa da.*

2. Lau aeroplano pasata }
bat itsosora jausi } bi
ekarri Sebastianak,
ekarri Sebastianak,
ekarri Sebastianak,
Ar! Artzan enkallata itxi.

Egia da, egia da...

3. Abuztuen hamabian }
Patxi Bermiora etorri } bi
ekarri katxalotia,
ekarri katxalotia,
ekarri katxalotia,
Puf! Artzan ustelduta itxi.

Egia da, egia da...

4. El aviador de Kankapur }
también quería volar } bi
etso itxi trinkadoriak,
etso itxi trinkadoriak,
etso itxi trinkadoriak...
Ba! Barrabaske(r)ia ein barik.

Egia da, egia da...



AZKEN DANTZA

Hitzak eta musika: Manex Pagola

Uh, uh, uh...

Azken dantza hau
maitia zurekin
nahi zintuzket
ereman nerekin.
Bainan gaurko xedia
ezin daike betia
badakit nik ere
bihar dela joatia.

*Bego pena hau itzuliren naiz
bai berriz **Euskal** Herrira.*

*Bego urte hau etorriko naiz
betikoz zure ondora.*

Uh, uh, uh...

Azken dantza hau
ez da sekulako.
Zin egina dut,
zin egin betiko,
hemen, gure lurrean
bizi behar dudala.
Hori ez bada
hilotz jar nadila.

Bego pena hau...



HESOLA (Agure zaharra)

Hitzak eta musika: Lluís Llach "L'estaca"

Euskaratua: Xabier Lete

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean
goizean goiz lantokira irteten nintzanean:
Ez al dek, gazte, ikusten gure hesola zein dan?
desegiten ez badugu, bertan galduko gara.

*Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,
usteltzen hasia dago-ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan,
ikusiko dek nola-nola laister eroriko dan.*



Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,
eskuak zartatu zaizkit, eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin:

Baina guztiok batera...

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik,
haize txar batek hartuta eraman du hemendik.
Haur batzuk ikusten ditut eta inguraturik,
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi:

*Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,
usteltzen hasia dago-ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan,
ikusiko dek nola-nola laister eroriko dan.*

Larai, larai, larai, larai...

Hik bultza gogor hortikan... (bi)

MATALAZ

Hitzak: B. Goihenetxe "Matalaz" / Musika: Benito Lertxundi

Dolü gabe,
dolü gabe,
hiltzen niz,
bizia Xiberuarendako
emaiten baitüt.



Agian, agian,
egün batez
jeikiko dira
egiazko xiberutarrak,
egiazko eskualdünak,
tirano arrotzen ohiltzeko. } bi

Agian, agian...

ITSASOARI BEGIRA

Hitzak: Jon Maia / Musika: Benito Lertxundi

1. Zazpi **mendeko** gauean gaude
gure loreetan sasi;
irrintzi, oihu, ele ta ulu,
marmario ta garrasi,
haize **enbata**, brisa, galerna,
gaur garbi, bihar nahasi,
xake taularen zuri-beltzetan__
arrats gozo egun gazi.
Ai itsasorik ez bageneuka
zeri so negarrez hasi!

2. Gure **zuhaitza** landatu dugu
amildegi muturrean,
adarrak daude ertzetik haruntz;
sustraiak, berriz, lurrean,
bihotz-**hesteak** estu helduaz
esku baten ahurrean.
Bertso berriak jartzera noa__
bere indar laburrean,
nola malko bat isuritzen den
itsasoaren aurrean.

3. Nola **haizea** ur azalean
eguzkiaren irteeran,
nola kaioak zorabioan
itsas enbata bezperan
pentsatzen nago gu ere berdin
ibiltzen ez ote geran
susmoa daukat gure patoa__

itsasoa ez ote dan:
libre ta zabal dugu aurrean
baina ezin dugu edan.

4. Heldu **herria** sustraietatik
tira eta gora jaso
jarri Kantauri aurrean eta
mantendu zutik hari so
ispilu hortan ikus gaitezen
herriz herri, auzoz auzo
zauriak gatzaz **itxi** ditzagun__
malkoak urez eraso.
Sano ta libre irla txiki bat
salbatuko gara akaso.

5. Azken **arnasa** eman nahi nuke
eguna hiltzen ari da
azken arnasa eman nahi nuke
bertsoak entzuten dira
azken **arnasa** eman nahi nuke
kantari nator herrira
azken arnasa ematen dugu__
eguzkitik eguzkira
azken arnasa eman nahi nuke } *bi*
itsasoari begira.
Azken arnasa eman nahi nuke
itsasoari begira.



BARATZE BAT

Hitzak eta musika: Pier Paul Berzaitz

1. Hau da egün ederra
mila xoriek kanta
ziauri ene erregina
besuak zuri
dititzüt para.

Baratze bat
nahi deizüt egin
amets segretü enekilan
liliak egün
jauntzi ederrenetan
mila kolorez dantzan
bihotzetan.

2. Gaü beltz ta sakonetik
elkitzen nüzü hoztürik
bihotza hain tristerik
zütaz hainen
berantetsitürik.

Baratze bat...

3. Karrosa bat hor dügü
kanpuan gure aidü(rü)
ez gal habo(ro) denbora
hiskor beitago amodioa.

Baratze bat...

4. Maitarzün berriari
ilargiak dü argi
emanen deikü aski
gük alkar maita
dezagün beti.

Baratze bat...

mila kolorez dantzan } *bi*
bihotzetan.



ISIL-ISILIK DAGO

Herri-kanta

Isil-isilik dago, kaia barrenian
ontzi xuri polit bat uraren **gaine**an. } bi

Goizeko ordu bietan esnatutzen gira
arrantzaliak triste joateko urrutira.

Pasatzen naizenian zure leihopet**ik**
negarra irteten zait begi bietatik. } bi

Zergaitik, zergaitik, zergaitik
zergaitik, zergaitik negar **egin**? } bi
Zeruan izarrak dagoz itsaso aldetik.

Bat, bat, bat,
parrandan ibili bart,
parrandan ibili bart.
Bi, bi, bi,

ez naiz ondo ibili,
ez naiz ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru,
kolkoa bete diru,
kolkoa bete diru.

Lau, lau, lau,
xardina bakalau.

Anteron txamarrotia,
Sinkerren bibotia,
harexek ei dauko,
ei dauko,
preso tximinoia.

Anteron txamarrotia, }
Sinkerren bibotia, } bi
harexek ei dauko, }
preso tximinoia. }



Hau dok, hau dok,
hau dok umoria!
Kontsolatzeko,
kontsolatzeko
euskaldun jentia!

Kalian gora,
kalian behera,
kalian gora zezena...
Ai, ai, ai,
kalian gora,
kalian behera,
kalian gora zezena!

Kalian gora, kalian behera,
kalian gora, kalian behera,
kalian gora, kalian behera,
kalian gora zezena.

Hau dok, hau dok
hau dok umoria,
kontsolatzeko,
kontsolatzeko
euskaldun jentia.

HERRIBEHERA

Hitzak eta musika: Benito Lertxundi

Herribehera, Herribehera,
zure landen **zabalera**
ortzi muga den hartan
mugatzen da.

Zure lur emankorretan
isurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko a(ha)l ditu
lur gozoak.


Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten aintzina
hats tristeetan mintzo da
haren mina.

Oo, oooo, oooo, oooooooooo!

Horma zahar arraituetan
txoriak dira kantatzen
mendetako lo geldia
salatzen.

Nafarra, anai zaharra,
kondairaren lehen sustarra
bego higan arbasoen
amets hura.

Oo, oooo, oooo, oooooooooo!



GUKEUSKARAZ

Hitzak: Gabriel Aresti / Musika: Jose Anttonio Larrañaga "Urko"

Guk euskaraz,
zuk zergatik **ez?** } bi

Euskara putzu sakon }
eta ilun bat zen } bi
eta zuek denok }
ur gazi bat atera zenuten } bi
handik nekez.



Guk euskaraz,
zuk zergatik **ez?** } bi

Orain zuen birtutez }
zuen indarrez } bi
euskara itsaso urdin }
eta zabal bat izanen da } bi
eta **guria da.**

Guk euskaraz,
zuk zergatik **ez?** } bi

Guk euskaraz, zuk ZER-GA-TIK EZ!

LORETXOA

Hitzak eta musika: Benito Lertxundi

Mendian larrartean
aurkitzen da loretxo bat
aurrean umetxo bat
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio:
umetxo, aska nazazu,
jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio,
bizi berri bat eman;
orduan izango baitu
indarra eta kemena
orduan emango baitu
ugari bere fruitua.



bi

EPERRA

Herri-kanta

1. Eperrak badititzü
bere bi hegalak
bai **eta** бүрүн **gainin**
kokarda eijer bat.

*Zük ere balinbazünü
gaztetarzün eijer bat
neskatilen gogatzeko
bilo hori pollit bat.* } *bi*

2. Amorosak behar lüke
izan lotsagabe
gaiaz ebiltia
ez üken herabe.

*Egünaz ebiltia
desohore leike
txoriak ere oro
haier soz dirade.* } *bi*

3. Ebili izan nüzü
gaiaz eta beti
eia atzamanen nianez
lili eijer hori.

*Azkenian atzaman düt
oi!, **bena** tristeki
lümarik eijerrena
beitzaio erori.* } *bi*

Lai, lai, lai...

*Azkenian atzaman düt
oi! **bena** tristeki
lümarik eijerrena
beitzaio erori.*



TXANTXIBIRI

(TXANTXIKITIN)

Otxandioko herri-kanta

Txantxibiri, txantxibiri
gabiltzanian
Elorrioko kalia,
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gainian.

} bi



Astoak ziran txiki-txikiak,
atsoak, berriz, **kristonak!**
Zelan demontre konpontzen ziran
zazpi astoren gainian!

} bi

Saltzen, saltzen,
txakur txiki baten karameluak,
¡Está muy bien!,
esaten dau konfiteruak.

} bi

Cuando vamos a Otxandiano
Santa Mañe egunian
me cagüen la mar,
tomaremos chocolate
Bulkanoren aurrian.

} bi

TXALAPARTA

Hitzak eta musika: Gorka Knörr

*Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi.
Xurruxumurru
bat-batean dira urrun.
Tiriki-trauki
ezker-eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira bi.*

hiru

**Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi.
Xurruxumurru
bat-batean dira urrun.
Tiriki-trauki
ezker-eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira...**

Bat, bat, bat, bat

Lara, la, la, lara lara... (hiru)



KOLDOBIKE

Bermeoko herri-kanta

Kai aldeko hegal baten
abesti hau entzun neban
gazte bat zan, bermiotarra,
maitea eban bere gogoan.

*Koldobike, neure maite,
zu zaitut zorionen ate
atseginez nauzu bete
gau honetan niganatu zaite.*



Abots eder ta itunaz
maiteari deika eguan
barrua ilun eta bakar
izarrik ez zan haren zeruan.

Koldobike, neure maite...



Etxe barik, inor barik,
hemen nauzu gaur bakarrik
nire bihotza ez da(g)o pozik,
ez dago inon Bermio lakorik.

Koldobike, neure maite... (bi)

OI GU HEMEN

Hitzak: Ameslariak / Doinua: "Sinner man" (Gospel)

*Oi gu hemen
bidean galduak } hiru
heriotz minez.*

Gizonen itzala luzea
negarrez, haizea gauean
arbolak, erroak aidean
heriotza da.

Oi gu hemen...

Pobreak kalean biluzik
barnea esperantzik gabe
doinua, basoko tristura
ilunabarrez.

Oi gu hemen...

Nundikan ezinaren mina
zergatik errekan iluna
egurra, kolpeka landua
bide hustuak.

Oi gu hemen...



NULA BIZI HALA KANTA

Hitzak eta musika: Pascale eta Jean Louis Aranburu

Udako egünaldi bero argietan
aidiak ekarri indar güzietan
kantü berri zaikü sortü goguetan
eskentzeko negüko gaü lüzetan.

Ainera bezala biltzen da gizona
baten ahidia denen egarria
algarretatzia zuin miragarria
etxe ondoan piztuko giro huna.



*Nula bizi hala kanta
dio üskaldünak
maitarzün emanez hola
adio lagünak.* } bi

Aiten aitek ützi guri oparia
idatzian ere zer dote ederra
egün hedatü nahiz züer sü garra
agor ez dadin hitzen itürria.

Nula bizi hala kanta... (bi)

Nula bizi hala kanta
nula bizi hala kanta
dio üskaldünak
dio üskaldünak
maitarzün emanez hola
maitarzün emanez hola
adio lagünak
adio lagünak.

} hiru

Nula bizi hala kanta!

TXORIA TXORI

Hitzak: JosAnton Artze / Musika: Mikel Laboa

Hegoak ebaki banizkio
neria izango zen } bi
ez zuen aldegingo...

Bainan honela
ez zen gehiago txoria izango... } bi
eta nik txoria nuen maite
eta nik txoria nuen maite.

Hegoak ebaki banizkio
neria izango zen
ez zuen aldegingo...

Bainan honela
ez zen gehiago txoria izango... } bi
eta nik txoria nuen maite
eta nik txoria nuen maite.

Lara laralala lala lala... } hiru



GOGOAREN BAITAN

Hitzak: Anje Duhalde / Musika: John Hiatt

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,
ez zitzaidala gertatuko,
maitasun sareetan ez nintzela berriz
uste gabeen eroriko.

Bi begi izpitxu, irripar ezti bat
izan dira nere galtzaile,
geroztik hor nabil arantzetan dantzan,
ezinezko amets sortzaile.

*Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.*

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke
sorgin bat bilaka banedi,
ezina egikor aldatzeko aina
gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra
jakin beharko nukelarik
sumendi gainean erretzen ari naiz
ba al dago irtenbiderik?

*Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.*

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu *nahi*,
uneak nahi **ditut** bizi,
lau egun dira ta bi omen lanotsu
galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanez
gorde nahiko nuke dena.
Biluzia nauzu izan zarelako
egoera honen sormena.

*Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan. } bi
Pasatzen zait gogoaren baitan,
pasatzen zait gogoaren baitan.*



BEGIAK BARREZ-BARREZ

Herri-kanta

Begiak barrez-barrez, }
bihotza negarrez, } bi
halaxe joaten nintzan, maitia, }
zugandik dolorez. } bi

Ama zuriak neri, }
parian pasata } bi
ez dit agurrik egin, maitia, }
burua jirata. } bi

Ama zuriak neri }
ez agur eiteko, } bi
zer palazio dauka, maitia, }
zuri emateko? } bi



Palazio eder bat }
haitzaren gainian, } bi
ez da euririk sartzen, maitia, }
ateri danian, ai, ai, ai }
ez da haizerik sartzen, maitia, } bi
ez dabilenian. }

GORA TA GORA BETI

Hitzak: Gabriel Aresti / Musika: Herri-doinua

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi!

Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala,
konformatzen ez bagara
ze pekatu mortala!

Gora ta gora beti...

Gurea ez da bizimodu normala:
lurra lantzeko aitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable
euskaldunon jornala!

Gora ta gora beti...

Munduan ezin bizi daiteke hala:
merkatuetan dena gora doala,
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseiluen olio
ez da postre formala.

Gora ta gora beti...

Obrero eta nekazari leiala,
zuena ez da errenta liberala.
Diru zikinak, putre motzak bezala,
botatzen dizu gainera
hortxe bere itzala.

Gora ta gora beti...

Jabeek dute kontzientzi zabala:
kakaztu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
burruka garbian dago,
hori da printzipala.

Gora ta gora beti... (bi)



AI ZE POLITA!

Hitzak: Abel Muniategi / Musika: Herri-doinua


Arrantzaleak ta baserritarrak,
langileak, danok anai**ak**,
itxas ertzetik ta legorreraino
izan gaitezan danok alaiak.

Lekeitio, Ondarru, Bermioko portua,
Uribe Kosta eta Ezkerral**de**,
gure jendea bai dala sanua,
beti dago euskararen alde.

Ai, ze polita dan gure Bizkaia!
Ai, ze polita Anbotoko Dama!
Busturi, Lea-Artibai ta Arratia, } *bi*
Bizkai osoa da gure ama.

San Anttonio Urkiolan dago eta
mutil zaharrak daukaguz po**zik**,
Bakioko txakolina hartuta
neskazaharrak engainaturik.

Pelotariak, baita aizkolariak,
txinga-erute ta sokatira,
arraunlari ta txirrindulari,
ta gora beti Athletic-ari.



Ai, ze polita dan gure Bizkaia... (lau)

ZENBAT GERA

Hitzak: Abel Muniategi / Musika: Benito Lertxundi

Zenbat gera? }
Lau, bat, } *bi*
hiru, bost, zazpi. }

*Zer egin **degu**? Ezer ez.*

*Zer egiten **degu**? Alkar jo.*

*Zer egingo **degu**? Alkar hil.*

*Zer egingo **degu**? Alkar hil.*

Gure asmoak, esperantzak,
herria, askatasuna,
justizia, pakea,
egia, maitasuna,
mitoak, **hitz** hutsak.

Zenbat gera...

Hori ez, hori ez!

Hori ez, hori ez!

Hori ez, hori ez!

Hori ez, hori ez!

Hori ez, hori ez!



XALBADORREN HERIOTZEAN

Hitzak eta musika: Xabier Lete

1. Adiskide bat bazen
orotan bihozbera
poesiaren hegoek
sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena.
2. Plazetako kantari
bakardadez josia
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia...
ikasia.
3. Hesia urraturik
libratu huen kanta
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.
4. Azken hatsa huela
bertsorik sakonena
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oihurik bortitzena...
bortitzena.

*Non hago, zer larretan,
Urepeleko artzaina
mendi hegaletan gora
oroitzapenen gerora
ihesetan joan hintzana.* } *bi*

Non hago... (bi)



POTTOKA

Hitzak: B. Irazabal / Musika: B. Eyherabide

Pottoka mendian / jauzika ibilki

buztana airean / sal**haia** iduri.

Ezin harrapatuz / Txomin da erori. } *bi*

Pottoka nausi da / gure gizonari. }

Di bi di bi dan dan, di bi di bi dan dan } *bi*

Di bi di bi di bi di bi, dan dan daaan }

gure gizonari.

La la lara, lara la la la la } *bi*

La la lara, lara la la la la. }

Denboran pottokak / ez emaiten sosa

ez zuen, ez, egiten / Parisen afera.

Neuilly-n ibiltzeko / ez zuen usain ona } *bi*

adixkidendako / ez aski ederra. }

Di bi di bi dan dan, di bi di bi dan dan } *bi*

Di bi di bi di bi di bi, dan dan daaan }

ez aski ederra.

La la lara, lara la la la la } *bi*

La la lara, lara la la la la. }

Txominek menditik / jautsi du pottoka

ileak mozturik / pentzetan emana.

Egun guz**iez** hartzen / bere azukrea } *bi*

iduri du orai / Vincennes(-en) sortua. }

Di bi di bi dan dan, di bi di bi dan dan } *bi*

Di bi di bi di bi di bi, dan dan daaan }

Vincennes(-en) sortua.

La la lara, lara ta ta ta ta } *bi*

La la lara, lara la la la la. }



ZUREKIN BATERA

Hitzak eta musika: ETS (En Tol Sarmiento)

Zenbat aldiz marraztuko nuke zure besoetan etorkizuna.
Zenbat aldiz aurkituko nuke zure usainaren oroitzapena.
Zenbat aldiz itxarongo nuke aurrez aurre egoteko hitzordua.
Egunak hobeak baitira zurekin batera.

Zenbat aldiz emango nizuke kafe bat hartzeko dudan denbora.
Zenbat aldiz asmatuko nuke zurekin egoteko aitzaki bat.
Zenbat aldiz entzungo nituzke zure ahotik gure istorioak.
Egunak hobeak baitira zurekin batera.

***Ta elkartuko gara berriro, gure betiko lekuetan,
zabalduko ditugu besoak, besarkatuz gure arimak.
Ta amestuko dugu gauean, oraindik gelditzen zaiguna.
Egunak hobeak baitira zurekin batera, zurekin batera.***

Zenbat aldiz ospatuko nuke behar dudanean zu hor zaudela.
Zenbat aldiz ulertuko nuke zure begiradetan aholku bat.
Zenbat aldiz esango nizuke besterik gabe maite zaitudala.
Egunak hobeak baitira zurekin batera.

***Ta elkartuko gara berriro, gure betiko lekuetan,
zabalduko ditugu besoak, besarkatuz gure arimak.
Ta amestuko dugu gauean, oraindik gelditzen zaiguna.
Egunak hobeak baitira zurekin batera, zurekin batera.***

} bi



*nana, nana, nana,
nana, na, na, nana, na,
nana, nana, nana,
nana, na...*



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

egundo i